

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
89/2011	R19/2017	2017/12/22	Zergapekoa	<i>Estatuko Administrazioa/Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa. Ez- egoiliarra El-rik gabe.</i>

Ebazpena: R19/2017

Espedientea: 89/2011

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 22a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide direla, erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

OMSE GMBH entitateak ZAEA-Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta BFA-Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako eskumen-gatazka dela eta 2009ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenari buruz sortutako ezadostasuna ebaztekoa —Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen ari da, 89/2011 espediente-zenbakiarekin, Javier Muguruza Arrese jauna txostengile duela—.

AURREKARIAK

1.- OMSE GMBH entitateak (aurrerantzean, Entitatea) aurkeztu zuen gatazka hau, 2011ko maiatzaren 4ko idazkiaren bidez; idazkia biharamunean aurkeztu zen ZAEAREN Euskadiko Ordezkaritza Berezian, eta 2011ko maiatzaren 6an sartu Arbitraje Batzorde honetan.

2. Idazkian, gatazka planteatzen duen Entitateak jakinarazten du ez-egoiliarra dela Espainian eta ez duela establezimendu iraunkorrik Espainian baina behartuta dagoela BEZ aitortpenak Erregimen Orokorrean aurkeztera. Orobat dio ez duela Espainian inolako biltegi, bulego edo lokalik, eta bere jarduera guztiak bere jatorrizko herrialdetik egiten dituela; borondatezko ordezkari legal bat duela Espainian, Bilbon (Bizkaian) zerga-egoitza duena.

Halaber adierazten du aurkeztu zituela, bai ZAEAREN aurrean, bai BFAREN aurrean, 2009 ekitaldiari zegokion BEZa itzultzeko eskabideak, eta bi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
89/2011	R19/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Estatuko Administrazioa/Bizkaiko Foru Aldundia	2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa. Ez-egoiliarra El-rik gabe.

Administrazioek ukatu egin ziotela itzulketa eskuduntza berena ez zela iritzita. Gatazkaren azalpen-idazkiak ez zekarren atxikita inolako ebazpenik —ez ZAEAREN eskutik ezta BFAren eskutik ere— berariaz azaltzeko eskatutako itzulketari uko egiten ziotela.

3.- Arbitraje Batzordeko presidentek idazki bat egin zuen 2012ko otsailaren 28an —zeina martxoaren 7an jakinarazi baitzitzaien Entitateari— hamar eguneko epean zuzendu zezan bi Administrazioek eskatutako itzulketa egiteari uko egiten ziotela berariaz ziurtatu ez izanaren hutsa.

Entitateak 2012ko martxoaren 20ko idazki baten bitartez erantzun zion errekerimenduari —idazkia, hilaren 23an aurkeztu zen ZAEAREN Euskadiko Ordezkaritzaren Erregistroan, eta hilaren 27 sartu zen Arbitraje Batzordean—. Harekin batera zetorren BFAren Ebazpena, 2010eko urriaren 27koa, non 2009ko BEZaren itzulketa ukatzen baitzitzaien, iritzita Entitateak Zergaren aplikazio-lurraldean egoitza ez zuela-eta ez zegokiola Administrazio hari itzulketa.

Idazki horretan bertan, Entitateak adierazten zuen ez zuela itzulketari buruz ZAEAK egindako ukoaren kopiarik, eta eskatzen zuen luza ziezaiola errekerimendua betetzeko epea.

4.- 2014ko urriaren 3an, Entitateak aurkeztu zuen ZAEAREN Euskadiko Ordezkaritzaren Erregistroan idazki bat, aurreko eguneko data zeramana, non jakinarazten baitzen honako hau: «Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean erreklamazioa egin zuela 2011ko maiatzaren 6an, eta hari buruzko erantzuna eta konponbidea jaso zuela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaz, eta horrela jakinarazten diogu Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeari espedientea itxi dezan».

7.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- 1760/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordean onartutako araudia onesten duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, «Arbitraje Batzordearen deialdiei, eraketari, bilkurei, ebazpen-hartzeari, funtzionamenduko araubideari eta prozedurari dagokienez, Herri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
89/2011	R19/2017	2017/12/22	Zergapekoa	<i>Estatuko Administrazioa/Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa. Ez- egoiliarra El-rik gabe.</i>

Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio».

2.- 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, honako hau xedatzen du 91. artikularen 2. apartatuan: «Administrazioak bete-betean onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura; hala ere, ez du prozedura amaitutzat emango, beste interesdunik aurkeztu bada eta, atzera egitea jakinarazi eta hamar egunetan, prozedura aurrera eramateko eskatzen badute interesdun horiek».

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- OMSE GMBH entitateak, 2011ko maiatzaren 6an, 2009ko BEZaren ordainarazpenaren inguruan sortutako ezadostasuna erabakitzeko planteatutako gatazkaren espediente artxibatzea.

2.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta OMSE GMBHk Espainian duen ordezkariari jakinaraztea.